

Abentura nahian bazabiltza


Erraz irakurtzen den autore da Jon Arretxe basauritarra. Eta intrigazko abentura bati eskatu ahal zaion gauzarik garrantzitsuena ez du inoiz begi-bistatik galtzen: irakurlea diberti dadila. Gaztea nintzela, unibertitate garaian, bolada batean irakurri nituen, asteburu bakar batean, *Ostegunak*, *Ostiralak* eta *Larunbatak* liburua, hirurak batera, bata bestearen segidan. Kasu honetan, *Dortokaren begirada*-n, berriro ere, testua garbia da, idazleak darabilen euskara txukuna, zuzena eta apaingarririk gabekoa. Egiturak ere ez du korapilo handirik, zuzen doa hasieratik bukaeraraino. Burkina-fasoar Mahamoud Toure sasi-detektibearen sagaren zortzigarren nobela honetan Madrilera etorri da protagonista, hain konkretuki, Lavapiés auzora. Bertan alokatu du apartamentu bat protagonista, Parisetik ihesian datorrela, lapurtutako harribitxi poltsa batekin. Tourék bizitza mugikorra du eta iheslari bat denaren patua jasan behar du, egiten dituen gauzen ondorioz. Egoera ez legezkoan dabil beti, alde batetik bestera, ez daki noiz topatuko duen behingoz gertatzeko leku segururik eta Lavapiés aproposa iruditu zaio ezkutaturik ibiltzeko, milaka etorkinen artean-gehiengo bat beltzak- inoren arreta erakarri gabe lasai bizitzeko aukera ematen diolako, hi-

ruburuko zentrotik, Duque de Alba, Mesón de Paredes, Ave María edo Amparo bezalako kaletatik.

Parisen lapurtutako harribitxi batzuk Retiro parkean ezkutatu ditu Tourek, baina norbaitek ostu egin dizkio, haien ordez harri bakan batzuk eta dortoka bat utzita. Animaliairen oskolean letra arabiar batzuk daude, pista moduan. Bilboko San Frantzisko auzotik etorriko zaio bisitan, ikerketan laguntzeko, Kristina ilegorriduna, aspaldiko amorantea, eta sagaren hirugarren nobelatik aurrera, desagertutako pertsonaia.

Aurrekoetan bezala, literatura beltzaren parametroen barruan koka daitekeen eleberri baten aurrean gaude, baina Arretxeren iritzian, genero poliziakoaren barruan ezinbesteko osagarria da kritika soziala, hainbat mezuei aurka egiteko, eta aspektu horren indarra areagotu du emanaldi honetan. Juan Madrid bezalako idazleek ondo dakite hori eta horren eredu dira. Horrezkero, logikoa dirudi eta ondo ulertzen da gizar-teko baztertueta jartzen duen

begirada. Etxega-beak, gameluak, kaleko drogazaleak, eta abar, giro kutsatuak. Poliziarrekin izandakoak eta injustiziak. Bakoitzak bere rola betetzen, azken baten. Arretxe kezkatzen zaion horretaz kezkatzen duen horretaz aritzen da, komunika-



Jon Arretxek *Dortokaren begirada* kaleratu du

bideetatik datozen mezu ultraeskuindarrekin diotenaz kezkatuturik.

Lehenengo nobeletan hain agerikoa zen umorea berreskuratzen saiatu da Arretxe, eta aurrekoetan nobela beltza gordina eta pertsonaia gogortuak zeuden lekuan, *Dortokaren begiradan*, orekatuagoa dago, umoreari -bortizkeriaren parean, halere- tarte handi bat uzten diolako. Saga aurrera zihola gaiztotzen joan zitzaion Arre-

xeri protagonista, nobeletan maltzurkeriak maiz egiten zituelarik, eta okerrerrako bidea zermalakopetan marraztuta antzematen zitzaiola. Egitura aldetik, narrazioa arina da, egileak izugarrizko trebezia du irakurlea nahi duen lekura bultzatzeko. Protagonistak burua salbatzeko asmoarekin egiten ditu ekintza gehienak, baina gero eta larriagoak diren kontuetan nahaspilatuta ikusiko da. Eragozpenak, bihurrikeriak eta arriskuak ez

dira gutxi izango, oztupoek batetik bestera darabiltzela, azkenean ezkutuko guztiak argitzen diren arte.

Gaur egunetik ikusita, Arretxe idazle emankorra eta metodikoa da, benetan oparoa, urtero liburu freskoren bat dakarren horietakoa. Ikasketaz euskal filologoa, bidaiakroniketan ikasitakoa nobela beltzara eramaten jakin izan du. Berak esanda, idazle izatera kasualitatez heldu zen. Bidaiak maiz eta sakon egiten zituen norbait izanik, halako batean, Labayruko lagunek, animatu zuten haiei idaztera, eta hortik atera zen *Hakuna Matata*, lehenengo liburua eta gutxira, bigarrena, *Tuburu*, beste bidaiak-narrazio bat.

Nobela beltza maite duenak ezin gusturago irakurriko du liburua, eta baita abenturazale hutsa denak ere, protagonistaren joan-etorriak direla eta. Ezer kritikatzekotan, errealistegia dela leporatuko nioke, nahiago ditudala irudimenezko gertaeretara bultzatzen nauten istorioak, baina, halere, eskeretzekoa da pertsonaien gardenkia, sinpletasuna.

Istoria bikain eta labur honetan, puzzle batetako piezen gisa, osagaiak lotzen joango dira, narrazioaren ildo borobiltzen. Mezu soziala duen nobela beltza da, azken finean, *Dortokaren begirada*, kontakizun poliziakoa litekeenetik harago joaten bada-kien narrazioa. Ez gaitu ezustean harrapatu Arretxek, baina jarrai dezala, luzaroan, hobe da-kiena egiten.

